

bilbao **museoa**

# **BBKateak**

## **Vries – Urzay**

Arte Ederren Bilboko Museoa  
Museo de Bellas Artes de Bilbao

**bbk** 

# Vries – Urzay

## 5. aretoa

Eraikin zaharra


0 solairua

## Ispilu-jokoa

Ispilu-joko batean bezala, Urzayk museoaren arkitektura klasikoa irudikatu zuen 1982an, 2021ean berriro, biluziago eta geldiago, errepikatutako amarru batean. Oraingoan, *Behatzailearen sabela*-ren argi-kutxa eta Francisco Durrioren musa leihotik zehar ikusteko aukera eragozten du. Bien bitartean, Vredeman de Vries margolari eta tratatugileak bere arkitektura-kapritxoa agertoki monumental eta ez oso probablean gortea egiten ari diren irudiekin.

# O Eraikin zaharra

## 0 solairua



# Hans Vredeman de Vries

1526-1609

De Vries “arkitektura-apetaren” ordezkariarik onenetako bat da, zeinaren aitzindari izan zen. Anberesen, hiriko arkitekto eta gotorleku-ingeniaria izan zen, eta Pragan Rodolfo II.a enperadoreak agindutako iturriak proiektatu zituen. Gehienbat urtemuga-ospakizunetarako arkitektura iragankorrak diseinatzen aritu zenez, haren lanaren zati handi bat galdu egin da. Vitrubio eta Serlioren tratatuak ezagutu zituen, eta, era berean, idatzi garrantzitsuak ondu zituen berak arkitekturaz eta perspektibaz. Arkitekturak pintatzeko garaian, haren grabatuek eragina izan zuten XIX. mendera arte.




## Arkitektura fantastikoa pertsonaiekin

1568. Olia haritz-oholean

Erdiko ihes-puntua eta horizonte-lerro baxua dauzkan perspektibak lagundu egiten du sakonera-efektu nabarmena eta italiar estiloko arkitekturaren izaera monumentala lortzen. Materialak ondo berezita ageri dira, eta nabarmentzekoak dira bai zutabeak ikus-amarruaz eratu izana, eta bai marmol desberdinez egindako zoladura. Atzealdeko lorategia, kontu handiz antolatuta, egilearen diseinuen isla ere bada, horiek estanpen bidez hedatuta. Elementu horiek guztiek, aisia lasaian murgilduta hizketan ari diren figura dotoreekin batera –beste artista batek margotuak beharbada, ohikoa zenez–, gorteko giro aski sofistikatu eratu dute.

1989an eskuratua



## **Variae Architecturae Formae**

1601. Akuatortea paperean

Theodor Gallek 1601ean argitaratutako liburu honetan bilduta daude Vriesen 50 estampa, eta lehenengo 21ak 1560-1562 tartean argitaratuak zituen Hieronymus Cock-ek. Lehenengo multzoa, inguruan kartutxo bat edo angeluetan dekorazioak dauzkan forma obalatuak duten agertokiak dituena, intarsia edo tarazea lanerako ereduak osatuta dago; dekoraziorako artisauteknika da hori, marketerian nahiz marmol edo harrizko piezetan erabiltzen dena. Bigarrenetan, irudiekin bizitutako perspektiba frontalak daude, zeinetan horizontearen lerroa ezartzeko altuera desberdinak erabili ziren. Estampak ugari hedatu ziren, eta XVII. mendeko arkitekturak irudikatzean espezializatutako artista asko inspiratu zituzten.

# Darío Urzay

1958

Bilboko Arte Ederren Fakultatean ikasia, euskal artista finkatuenetako bat da. Hasierako lanetan, pop britainiarrarekin eta hiperrealismo berezi batekin lotu zen, atmosfera geldiko barnealdeak eta materiaren deskribapen xehatua irudikatuz. Londresen eta New Yorken 1988tik 1994ra egin zituen egonaldien ostean, errotik eraldatu zen haren pintura. Harrez geroztik, haren argazki-lanek digitalaren eta margolaritzaren arteko sinbiosi bat aurkezten dute, erresonantzia organikoen irudi abstraktuak erabiliz, akabera perfektuko eta optika tridimentsionaleko gainazal akrilikoetan islatuta, gardentasunari eta argiari aparteko garrantzia emanda.



## **XV. mendeko artista baten proiektua. “Irudimeneko museo baterako proiektua” saila**


1982. Akrilikoa okumezko taulara itsatsitako mihisean

Bilboko Arte Ederren Museoaren eraikin zaharreko barne-arkitektura da protagonista, aurreko akaberekin; zur iluneko marko eta zokaloak, eta marmol beltzeko zorua, zain margotu sendoekin. Bere ibilbideko fase hartan, marrazteko trebeziaz baliatu zen Urzay, errealitatearen irudikapen epidermiko hutsa gainditzen duen jarduera plastiko betean. Ia hutsik dagoen espazioa hartu duen argiaren tratamenduari esker, zoladuraren ispilu-efektua eta aurrez aurreko perspektiba erabiliz, pintoreak lortu egin du leku iradokitzailea eratzea, ia magikoa.

Artistaren bilduma



© Dario Urzay, VEGAP, Bilbao, 2022



## **Behatzailearen sabela (Arreta-atalasea)**

2001. Olioa, erretxina eta argazki-papera zur gainean

Lan konplexu honetan dikotomia gauzatu ageri da hainbat bikoren artean: digitala eta materikoa, bitarteko tradizionalak eta teknika berriak, mikroskopikoa eta monumentala, transmititutako argia eta argi islatua. Zenbait argi-kaxarekin osatuta dago, eta horien irudi positibatuak beste hainbeste pieza txikiago eratu dituzte, erretxina akrilikoz errematatuak. Harizpi erako formek eta tridimentsionaltasun simulatuak organismo bizi baten barrualdea dakarte gogora, espresionista bihurtzen dena. Bilboko Arte Ederren Museoak 2001ean Gaur, Hemen, Orain erakusketarako artistari egin zion enkargua izan zen pieza hau; hasiera batean, eraikin modernoan instalatu zen.

2002an eskuratua

© Dario Urzay, VEGAP, Bilbao, 2022



## **Irudimeneko museoa 82/21 – III**

2021. Tenpera akrilikoa, pastela, arkatza eta grafitoa kartoian

Marrazki hau hiruko serie baten parte da; horrekin, margolariak, lehen etapa errealistan erabilitako estiloa gogora ekarriz, erronka jo zion bere buruari. Horretarako, “irudimeneko museoa” gaia berreskuratu zuen, hau da, Bilboko Arte Ederren Museoa, barrualdea hasierako urte haietan bezala erretratatzuz, baina “egungo burua” erabilia. Argi ageri dira hor gaur egun Urzay den artistarengan dirauten trebetasun teknikoa, material plastikoen erabilera fina, eta espazioa nahiz argia atzemateko abilezia.

Adakar Corporation SLren dohaintzari esker eskuratua 2021ean

# BBKateak

*BBKateak* erakusketa-proposamenaren helburua da bildumari narratiba berriak ematea, museoaren handitze proiektuko lanek iraun bitartean. Aldizka eguneratuko den aurkezpen-programa dinamiko baten bitartez, eraikin zaharreko areto bakoitzak bi artistaren eta haien lanen espero gabeko aurrez aurreko bat erakutsiko digute; denboran edo/eta jatorri kultural edo geografikoan urrunekoak izan daitezkeen izenak izango dira; horrela, arteari buruzko ikuspegi eraldatzailea eta eraikitzen ari dena iradokiko da. Modu horretan, museoaren metamorfosia islatuko da etengabe aldatzen ari den bilduma batean.

Programa *Hamahiru Centaurusera* lanak abiaraziko du; Sergio Prego artistaren eskultura-proiektua da, aretoak hustetik sortua.